

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko xedapen-aldaketari, zeinek tranbiaren sistema orokorra ezarri eta mugatzen baitu

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2018ko abenduaren 21ean egindako ohiko bilkuran:

Gaia: behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko xedapen-aldaketari, zeinek tranbiaren sistema orokorra ezarri eta mugatzen baitu.

Erabaki-proposamena

2017ko maiatzaren 4an, Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariak Gasteizko Gasteizko HAPOren egiturazko xedapen-aldaketa bat osatu eta erredaktatzeko eskatu zien udal zerbitzu teknikoei, Gasteizko tranbiaren sistema orokorra ezarri eta mugatuko duen egiturazko xedapen-aldaketa bat proposatzeko.

Zehazkiago, indarrean dagoen HAPO aldatu nahi da, Trenbidearen Sektoreari buruzko Legeari eta haren Erregelamenduari egokitzearren, Tranbiaren sistema orokorra definitu eta mugatuz, bai eginda dagoen zatiari bai egitekoa denari dagokienez, eta aurreikusitako trazatuaren antolamendua egokituz arazoak sortzen diren zatiei dagokienez.

Gasteizko HAPOren aldaketa honi dagokion proiektuan honako hauek jaso dira: lan taldea, proposamenaren deskribapena, aldaketaren justifikazioa eta beharra, hirigintza estandarrek betetzeari buruzko justifikazioa, aldaketaren izaera eta eremua, bideragarritasun ekonomiko finantzarioaren azterlana, iraunkortasun ekonomikoari buruzko txostena eta herritarren partaidetzarako programa.

Aplikatzekoak diren legezko arauak dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plangintza orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori formulatzeko gutxieneko agiriak. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plangintza orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko arauak ezartzen dira.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, horretaz gain, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluaren Araudiko 6. artikulua —2008ko maiatzaren 4an onetsia— eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 109 eta 110 artikuluetan xedatzen dutenez, jendaurreko aldiaren Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluak nahitaezko txostena egin behar du plangintza orokorrean egin nahi den aldakuntzaren inguruan, eta hasierako onespenerako agirian jaso.

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 91.2 artikulua xedatzen duenez, behin-behineko onespina eman zaion plangintza orokorraren aldakuntzaren proiektua Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari igorri behar zaio, txostena eman dezan; izan ere, horiek guztiek bat etorri behar dute lurralde antolamendurako tresna guztiekin zein estatuaren, erkidegoaren edo foru aldundiaren eskumenekoak diren alderdi sektorialekin.

Udalbatzari dagokio planeamendu orokorrari hasierako onespina ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen zein bestelako tresnen udal izapidetzeari amaiera ematen dion onspina ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.i) artikulua (Tokiko Gobernu berritzeko neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua) dioenaren arabera.

Arestian aipatutako arauak kontuan hartuta, honako tramitazioa izan du dosierrak:

– HAPON, Gasteizko tranbiaren sistema orokorra ezarri eta mugatuko duen egiturazko xedapen-aldaketa bat proposatzeko eskatu zitzairen udal zerbitzu teknikoei, zinegotzi ordezkariak 2017ko maiatzaren 4an emandako probidentzia tarteko.

– 2017ko maiatzaren 10ean Udalaren web orrian argitaratu dira planaren aldaketaren aurrekariak, ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, onestearen beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak eta izan daitezkeen konponbide alternatiboak, arautzaileak eta ez arautzaileak.

– 2017ko ekainaren 9an Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin du udal antolamenduaren aldaketa hori jasotzen duen udal teknikarien proiektua.

– Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak dosierrari hasierako onspina emateko ezargarri den araudiaren eta arauzko prozeduraren aldeko txostena egin du, 2017ko ekainaren 9an.

– 2017ko ekainaren 23an Gasteizko udalbatzak hasierako onspina eman dio HAPO aldatzeko proposamenari.

– 2017ko uztailaren 14an ALHAOn eta 2017ko uztailaren 7an lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean argitaratu da hasierako onspina, eta hilabeteko epea eman da alegazioak aurkezteko.

– Udal teknikariek jendeari azalpenak emateko saio irekia egin zuten 2017ko uztailaren 17an, eta alderdi hauek ezagutarazi dituzte: dokumentua kontsultatzeko erak, bilera partikularretarako hitzordua eskatzeko aukera, eta alegazioak aurkezteko era, lekuak eta epeak.

– Plangintzarako Aholku Kontseiluak aldakuntzari hasierako onspina ematearen aldeko txostena egin du 2017ko uztailaren 17an.

– Hasierako onspenaren aurka aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta, horiek neurri batean onestea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko azaroaren 3an, eta horrenbestez, proiektuko paragrafo bat aldatu eta proiektuko bigarren planoko azalpena zuzendu da.

– Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak dosierrari behin-behineko onspina emateko ezargarri den araudiaren eta arauzko prozeduraren aldeko txostena egin du, 2017ko azaroaren 7an.

– Gasteizko udalbatzak aldakuntzari behin-behineko onspina eman dio 2017ko azaroaren 24an.

Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren Batzarraren Arabako hirigintza plangintzako sekzioak, 2018ko otsailaren 21ean, ez dio oztoporik jarri dosierrari, honako araudietara egokitzeari dagokienez: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Euskal Herriko Lurraldea Antolatzeko 4/1990 Legearen instrumentuetara eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunaren eta Lurralde Historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko legea aldatzen duen 5/1993 Legean adierazitako alderdietara.

– Aurreko guztia kontuan hartuta, udal zerbitzu teknikoek 2018ko otsailean erredaktatu dute Gasteizko tranbiaren sistema orokorra ezarri eta mugatuko duen egiturazko xedapen-aldaketaren proposamena.

Proposatutako planteamenduekin bat etorritik, dosierrean jasotako hirigintza-agirietan haren beharra eta egiteko egokiera justifikatuta daudelarik, aipatu diren arauak kontuan harturik, eta Gasteizko Udaleko Hirigintza Sailak aurtengo uztailean egindako txosten teknikoarekin bat, Toki Jaurbidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legeak – Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriari buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak osatua – 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Hirigintzako Irizpen Batzordeak hau aurkezten dio udalbatzari,

Erabakia

1. Behin betiko onestea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketa, zein tranbiaren sistema orokorra ezarri eta mugatzeari baitagokio, Udalaren Hirigintza Saileko zerbitzu teknikoek 2018ko uztailean idatzitako proiektuan jasotakoarekin bat.

2. Erabaki hau eta aipatutako aldakuntzaren hirigintza arauak ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik.

Aldatutako arauak

Aldatutako plangintzaren planoak: 6. Sistema orokorrak, eta 7. Mugak. Eskernak, tamaina dela eta https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=u_541c87d4_15cecf97216_7f1e bidean dago.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urtarrilaren 15ean

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

2. atala. Erabileren erregimen orokorra.

1. atala. Erabileren araubidea.

5.02.04. artikulua. Erabilera globalen eta xehatuaren definizioa.

Erabileren araubide hau ondoren adieraziko diren erabilera globalak eta horiei dagozkien erabilera xehatuak aintzat harturik egituratu da:

ERABILERA GLOBALAK	ERABILERA XEHATUAK
1 Bizitegia -----	familia bakarreko etxebizitza bi familiako etxebizitza etxebizitza kolektiboa
2 Ekoizpena -----	industria biltegi eta lantegiak nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak
3 Tertiarioa -----	bulego eta bankuak dendak eta azokak hotelak eta egoitza komunitarioak establezimendu publikoak
4 Ekipamenduak -----	kirola hezkuntza osasuna asistentzia kultura ikuskitunak erlijioa unibertsitatea administrazioa eta hiri zerbitzu txikiak defentsa zuzkidura-alojamenduak generikoa
5 Hiri-zerbitzuak -----	hiri-zerbitzu orokorrak hilerriak beilatokiak
6 Espazio libreak -----	hiri-parkeak berdegune publikoak berdegune pribatuak saikatu/eremua erabilera pribatuko gunea librea
7 Azpiegiturak -----	energiarekin zerikusia duten oinarrizko azpiegiturak
8 Bide-sarea -----	hiriarteko bide-sarea hiriko bide-sarea bidezidor eta bideak ibilbide ekologikoak
9 Garraioak -----	trenbide-sarea tranbia-sarea geltokiak aireportua
10 Aparkalekuak -----	aparkaleku publikoak aparkaleku pribatuak

5. atala. Hiri-zerbitzuen erabilera.

1. atala. Definizioa eta hartzen dituen erabilera xehatuak.

5.03.32 artikulua. Erabilera xehatuaren sailkapena eta definizioa.

Ondorengo erabilera xehatuak hartzen ditu barne:

1. Hiri-zerbitzu orokorrak.

Erabilera globalaren jarduera guztiak hartzen ditu barne, hilerriak eta tanatorioak izan ezik.

Adibide moduan, ondokoak sartzen dira: udal-hiltegia, garbitokiak, ibilgailuentzako erregaiak, karburanteak, elektrizitatea eta gasa hornitu nahiz saltzeko instalazioak, suhiltzaileak, herritarren babesa, Udaltzaingoa, Telefonika, ur-araztegiak, hondakin solidoen zabortegia, hondakinen trinkotze-eta transferentzia-guneak, kotxetegiak, udal-ibilgailuak (tranbia, autobusak, hondakinen bilketako kamioiak etab.) gorde, onik zaindu, garbitu eta konpontzeko zein ibilgailu horientzako erregaiak, karburanteak, elektrizitatea eta/edo gasa, etab. biltegitatu zein tratatu eta hornitzeko.

.....

8. atala. Errepide-sarearen erabilera.

1. atala. Definizioa eta hartzen dituen erabilera xehatuak.

5.03.47 artikulua. Erabilera xehatuaren sailkapena eta definizioa.

Ondorengo erabilera xehatuak hartzen ditu barne:

1. Hiriarteko bide-sarea.

Hiriaren perimetroaren kanpoaldeko ibilgailu-bideen multzoa hartzen du barne, udal-egituran funtsezko harreman funtzioa betetzen duena, herrialdeko bide-sare nagusiarekin eta hiriko bide-sare nagusiarekin.

Autobideak, kanpoaldeko nahiz barnealdeko autobidak, errepide nazionalak, eskualde-errepideak, tokiko errepideak eta auzo-errepideak biltzen ditu.

2. Hiriko bide-sarea.

Hiriaren perimetroaren barnean, hiriarteko ibilgailuentzako bide-sareak hartzen ez dituen pertsonen eta ibilgailuen komunikabide guztiak biltzen ditu (tranbia, trenbideak eta aireontziak izan ezik).

....

8. atala. Errepide-sarearen erabilera.

3. atala. Erabilera xehatuaren baldintza partikularrak.

5.03.50 artikulua.- Hiriko bide-sarearen erabilera baldintza partikularrak.

1. Bide hauen erabilera erregimen orokorra arau hauetan eta aurrean dituzten lurzatietan aplikatu beharreko Eraikuntzari eta Erabilera buruzko Ordenantzetan diseinatutakoa da.

2. Sestraren azpiko aparkalekuak baimenduko dira, erabilera horri dagozkion espazioak barne, hala nola sarbideetako itzarote eremuak. Aparkaleku erabilera ezartzeko bide-sarean egiten den esku-hartze bakoitza Mugikortasun Planeko jarraibideei egokitu beharko zaie, eta orobat izan beharko du mugikortasunaren ardura bere gain hartua duen sailaren aldeko txostena, non, gutxienez ere, kokalekuaren egokitasuna eta esku-hartzearen dimentsio egokiak aztertuko beharko diren.

3. Oro har, eraikinak lerrokaduren eta normalean paraleloak izaten diren bi planoen luzapen bertikalaren arteko espazioa hartzeko, bide horretara ematen duten lurzati-tako ordenantzak berariaz baimendu behar du aukera hori eta eraikinaren hegalkinak, gutxienez, espaloaren kotatik 3,5 m-ra egongo dira eta iragarkiak jartzerakoan ere baldintza berak izango dira kontuan.

4. Hala ere, I. kategoriako 2. egoeran eta II. kategoriako 2. egoeran beheko solairuetako fatxadak lerrokaduratik gehienez ere 0,10 m irtetea onartuko da, erakusleihen erlaitzak, toloak, sartzeko eskailerak etab. jartzeko.

5. Bideak babesteko hesiak onartuko dira, baina espaloiarenean barnean, gutxienez, oinezkoak igarotzeko 1 m utzi behar da edo, bestela, baimendutako aparkalekua baldin badago, espaloiarenean kanpoan behin-behineko zoladura baten bidez pasabidea bermatuko da, baina horrek ez du inoiz aparkalekuaren eta errepidearen arteko muga gaindituko.

6. Salgaien zamaketa-lanak eta jarduera logistikoa errazteko lurpeko espazioak eraikitzea baimentzen da, baldin eta espazio publikoaren antolamenduaren alorrean eskumena duten udal zerbitzu teknikoek espazio horien eraikuntza bideragarria dela dioen aldeko txostena egiten badute.

7. Eraikinak elkarren artean lotzeko zaldainak eraikitzea baimentzen da, eraikin horien artean oinezkoen joan-etorria erraztearren, baldin eta espazio publikoaren antolamenduaren alorrean eskumena duten udal zerbitzu teknikoek zaldainaren eraikuntza bideragarria dela dioen aldeko txostena egiten badute, non zaldainaren neurriak, estetika, galiboa eta egoki deritzen beste xehetasun batzuk ere zehaztuko diren.

8. Hiriko bide-sarearen eta tranbiaren erabilerak bateragarritzat jotzen dira Udalak kasu partikular bakoitzerako Udalak baimentzen duen termino eta baldintzen arabera: oinezkoentzako pasabideak, trenbide-pasaguneak edo/eta zati konpartituak.

9. atala: Garraioen erabilera

1. atala. Definizioa eta hartzen dituen erabilera xehatuak.

5.03.53 artikulua.- Erabilera globalaren definizioa.

Pertsonen nahiz salgaien hiriarteko garraio publiko edo kolektiborako ibilgailuak ibiltzeko eta aparkatzeko zuzendutako espazioak biltzen ditu.

Trenbidea, autobusak eta hegazkinak sartzen dira bereziki.

Halaber, zerbitzuen erabilerak edo nagusiaren osagarriak ere sartzen dira, hala nola merkataritzakoa, establezimendu publikoetakoa, aparkaleku publikoetakoa etab.

5.03.54 artikulua, Erabilera xehatuaren sailkapena eta definizioa.

Ondorengo erabilera xehatuak hartzen ditu barne:

1. Trenbide-sarea.

Barne hartzen ditu trenbide-lineak eta horien babes-zerrendak, ibilgailu horiek igarotzera edo maniobrak egitera bideratuak.

2. Tranbia-sarea

Tranbiaren plataforma eta nasak hartzen ditu baitan, bai eta ibilgailu horiek igarotzera edo maniobrak egitera bideratutako guneak ere.

3. Garraio-geltokiak.

Hiriarteko garraio publiko edo kolektiborako ibilgailuak geratu, horiei itxaron eta horietara igotzera bideratutako (bai eta horiek egotera ere) espazioak hartzen ditu barne. Modu subsidiarioan, erabilera tertziarioak ere har ditzake (merkantziak biltzeko, txartelak saltzeko, ostalaritza eta tamaina txikiko dendak, bai eta tamaina txikiko zerbitzu publikoak eta aparkaleku publikoak), baldin eta erabilera bereizgarriaren osagarri badira.

4. Aireportua.

Salgaien edo pertsonen aireko garraiorako beharrezkoak diren ibilgailuak edo pertsonak igarotzeko zuzendutako erabilera kolektibo edo pribatuko espazioak biltzen ditu. Aireko garraioaren erabilera osagarriak edo horren zerbitzuari dagozkionak ere barne hartzen ditu, hala nola zerbitzuetakoak, zerbitzu publiko txikiak, aparkaleku publikoak, etab.

III. LIBURUKIA: HIRIGINTZA ARAUAK
V. TITULUA: ERAIKUNTZARI ETA ERABILERARI BURUZKO ARAU OROKORRAK
3. KAPITULUA: ERABILEREI BURUZKO ARAU PARTIKULARRAK
9. atala: Garraioen erabilera
3. idatz-zatia: Erabilera xehatuaren baldintza partikularrak.

5.03.56B artikulua. Tranbia-sarearen erabilerearen baldintza partikularrak.

1. Tranbia-erabilereko Komunikazio Sistema Orokorra

Tranbia-erabilereko Komunikazio Sistema Orokorra barne hartzen ditu geltokietako nasak eta tranbiaren plataforma; plataforma hori definitzen dute tranbiak erabiltzeko asmoz galtzadan bi lerro etengabe edo etenen bidez (hurrenez hurren, plataforma eskusiboa edo konpartitua den) gauzatutako zabalera aldakorreko bandak, zintarri murgildu edo galtzadatik atereek edo parterrearen mugek (zintarriak, "bide berdeen" kasuan).

2. Jabari publikoko tranbia-eremua

Jabari publikoko tranbia-eremua Tranbia-erabilereko Komunikazio Sistema Orokorra okupatzen duenarekin bat dator.

3. Tranbiaren zortasun-gunea

- 3.1. Hiri-lurzoruan, zortasun-gunea trenbide-plataformaren alde bakoitzean da metro bateko zerrenda batek definituko du horizontalki. Bertikalki, zortasun-guneak honako muga hauek izango ditu: azpitik, hiru metro errailen mailatik behera, eta goitik hiru metro kontaktu-haritik gora.
- 3.2. Hala dagokionean, lurzoru ez hiritarreko zortasun-gunea Plan Bereziaren bitartez haren trazatura zehazten denean zehaztuko da.
- 3.3. Orobat, metro bateko zortasun-gunea ezarriko da baita katenariaren zutabeen, finkagailuen, argindar-armairuen eta tranbiaren ustiapenarekin lotutako gainerako elementu lagungarrien inguruan.

4. Eragin-gunea

- 4.1. Hiri-lurzoruan ez da eragin gunerik bereziko.
- 4.2. Hala dagokionean, lurzoru ez hiritarreko eragin-gunea Plan bereziaren bitartez haren trazatura zehazten denean ezarriko da.

5. Jabari publikoko tranbia-eremuaren eraikuntza- eta erabilera-baldintzak

- 5.1. Jabari publikoko tranbia-eremuan soilik trenbide-zerbitzua emateko beharrezko diren lan edo instalazioak onartuko dira, edo interes orokorreko zerbitzu publiko bat emateak nahitaez eskatzen badu, aldeaz aurretik eskumena duen organo administratiboak baimena eman duelarik, eta lineako azpiegitura kudeatuko duen titularrari entzun zaiolarik.
- 5.2. Kasu berezietan, eta arrazoi bidezkoak daudenean, baimendu ahal izango da jabari publikoko gunea interes pribatuko obra edo instalazioek bai airetik bai lurrazpitik zeharkatzea.
- 5.3. Debekaturik dago zuhaitzak landatzea.
- 5.4. Ezin izango da lurrazpiko hoditeriarik egin, bestelako konponbide teknikorik ez dagoenean izan ezik


6. Zortasun-gunean dauden lursailen eraikuntza- eta erabilera-erregimena.

- 6.1. Zortasun-gunearen barruan ezin izango dira eraikuntzak edo berreraikuntzak egin, kasu berezietan, inguruabarrak kontuan hartuta, eta tranbiari kalterik egiten ez zaiola justifikatzen delarik, linearen titularrak baimena ematen badu izan ezik, aurretiaz mugapen eta aldi baterako atzemateak onartuta.
- 6.2. Aurreko atalean aurreikusi ez diren obrak edo trenbidea zeharkatu behar duen edo tranbiaren bideak, haren lurren, instalazio edo eraikinen zortasun edo mugapenen bat dakarren beste edozein jarduketa egiteko, linearen titularraren baimena behar da eta hark jarduera zer-nolako baldintzetan egin behar den zehaztuko du eta obra edo jarduera horiek tranbia kaltetzen ez dutela bidezkotu beharko da.
- 6.3. Zortasun-gunearen zoruaren erabilerak eta eraikuntzak honako mugapenei atxikiz egingo dira:
- (a) Ez da zuhaitz-landaketarik baimenduko.
 - (b) Ez da goi-tentsioko linea elektrikorik instalatzea baimenduko.
 - (c) Behe-tentsioko linea elektrikoak, eta telefono- eta telegrafo-lineak baimendu ahalko dira, baldin eta zutabetik gune berdinduaren ertzerainoko distantzia altueraren halako bat eta erdikoa baino txikiagoa bada. Gutxieneko distantzia hori airetiko gurutzaketen zutabetan ere aplikatuko da.
 - (d) Ez da lurpeko hodirik baimenduko, non ez den bestelako konponbide tekniko egingarriak aurkitzen.
 - (e) Ebaketen eta lubeten euste-hormak eraikitze baimena kasu berezietan eman dezake linearen titularra den enpresak, beti ere, bermaturik badago horrek ez diola trenbideari kalterik ekarriko. Kasu horretan, linearen titularrari eskaerarekin batera proiektu bat aurkeztu behar zaio eta bertan, eraikuntzak lur-berdinketaren gainean izango lukeen ondorioa, euri uren kanporaketan eta zirkulazioaren segurtasunean leukakeen eragina aztertu behar da.
- 6.4. Linearen titularrak zortasun-gunea erabili edo erabiltzeko baimena eman ahal izango du interes orokorrekoa denean edo tranbiaren zerbitzu hobeak hala eskatzen badu eta, bereziki, ondoko edozein helburu betetzeko:
- (a) Trenbideko edo haren elementu edo instalazioetako eraiketa, konponketa edo zaintza obrak egiteko materiala, makinak eta erremintak aldi batean gordetzea.
 - (b) Trenbidean egon eta zirkulaziorako arriskutsu izan daitezkeen gauza edo materialak aldi baterako gordetzea.
 - (c) Ur- eta elektrizitate-hodi edo bestelakoentzako igarobidea zehaztea, betiere beharrezko baimenak lortu direlarik.
- 6.5. Aurreko ataleko epigrafeetan jasotzen diren balizkoetan, linearen titularra den enpresak aurretiaz jakinaraziko dio eragindako jabeari edo higiezina daukanari atzemateko erabakia, atzemate-aldia, atzematearen xedea eta atzematearen onuraduna izango den pertsona eta entitatearen izena.
- 7. Tranbia-bideetara pertsona eta ibilgailuan sartzea eta ibiltzea**
- 7.1. Xede horretarako bereziki emandako baimenik ezean, ezin izango dute pertsonak eta ibilgailuek tranbia-bideetan sartu, ez eta beraietan ibili, eta tranbia-bideak horretarako finkatutako pasabideetatik zeharkatuko dira, erabilera horretarako zehazten diren mugapen edo baldintzekin.

7.2. Erregimen berbera aplikatuko da tranbia-bideetan sartu, geratu edo ibili nahi duten ibilgailuentzat.

EREMUKO FITXA
HIRI LUZORUA. 5. BBPB

5. BBPB UNIBERTSITATE GUNEA, II. FASEA



KALIF. GLOBALAK	% 3,04 GKSO, % 78,44 KESO, % 18,52 bizilekuak
KALIF. ADIERAZGARRIA	Unibertsitate-ekipamendua
LURZORU MOTA	lurzoru urbanizagarria: Sistema orokorra
AZALERA OSOA.....	162.040 m ² a
ERAIKIGARRITASUN GORDINA	0,7537 m ² e/m ² a
APROBETXAMENDU TIPOA	----- m ² hk/m ² a
GARATZEKO TRESNA	Plan Berezia eta Urbanizazio Proiektua
JARDUKETA-SISTEMA.....	Hitzarmena
EKIMENA	Pribatua
EPEA	Bi urte

EREMUKO FITXA.
HIRI-LURRA, 5. BBPB

5. BBPB – UNIBERTSITATE GUNEA, II. FASEA

LURZORU MOTA	LURZORUAREN SAILKAPENA / KALIFIKAZIOA				ORDENANTZA / LURRAREN APROBETXAMENDUA			
	KALIFIKAZIO GLOBALA	AZALERA (m ²)	KALIFIKAZIO XEHATUA	KUANTIFI KAZIOA m ²	(2) APLIKATU BEHARREKO ORDENANTZA / (ERREFERENTZIA)	ERAKIG ARRITASUNA m ² /m ²	IRABAZIZKO APROBETXAMENDU A, GUZTIRA, m ² c	GEH. ETXEBIZITZ A KOP.
Hiri lurzorua	Garraio eta komunikazio sist. orokorra Komunitate- ekipamenduko orokorra	4.927 127.110	Bideak Ekipamendua Unibertsitatea Espazio libreak Berdeguneak	4.927 113.538 8.340 5.232	Plan Bereziak arautua		122.127	
Hiri lurzorua	Bizilekua	30.003	Berdegunea Espazio librea Bideak	16.577 6.864 6.562				
GUZTIRA		162.040					122.127	

5. BBPBaren APROBETXAMENDU TIPOA: ----- m²hk/m²a

HOMOGENEIZAZIO-KOEFIZIENTEAK:

Erabilera eta tipologia bereizgarria: Ekipamendu publikoa: 1

APROBETXAMENDUA, GUZTIRA 122.127 m²e
 ERAIKIGARRITASUN GORDINA: 0,7537 m²e/m²a
 ERAIKIGARRITASUN GARBIA: - m²e/m²a (3)

- (2) Aplikazio loteslea, edo tipologia erreferentziakoa, parentesi artean badago.
 (3) Sistema orokorrak alde batera utzita.

EREMUKO FITXA

5. BARNE BERRIKUNTZARAKO PLAN BEREZIA

Unibertsitate gunea, II. fasea

IZENA

Unibertsitatearen esparrua, II. fasea

XEDEA

Plan bereziak eremua antolatzea du xede, indarrean dagoen legediari jarraiki hiri-lurrari dagokion xehetasunaz.

ANTOLAMENDU-ARTEZPIDEAK

Lerrokadura eta kalifikazio xehatuen planoetan adierazi egin dira ekipamenduko lursailen lerrokadurak. Horiek gehienezkoak izango dira, eta plan berezia gauzatzean egokitzapen arloko aldaketak izan ditzake.

Nieves Cano kalea –bidea eta espazio libreak– 25 metro zabal izango da gutxienez eta, Justo Velez de Elorriaga kalea, berriz, 21 metro zabal gutxienez, bidea, espazio libreak eta berdegune publikoak kontatuta.

Baimendutako erabileren erregulazioa hau da:

- Erabilera globala: ekipamendu komunitarioa eta bide-sarea
- Erabilera xehatuak: nagusiak: unibertsitate- eta hezkuntza-ekipamenduak, bideak.
bateragarriak: kirol, hezkuntza, kultura-elkarte eta erlijio arloko ekipamenduak.
osagarriak: bide eta aparkalekuak eta espazio libreak.

Hirigintza-parametroak honela finkatu dira:

- Eraikinaren gehieneko altuera: 13,50 m, azken forjatuaren behe aldean neurtuta
- Gehieneko eraikigarritasuna: ezarritako gehieneko aprobetxamendua (122.127 m²e) banatuz sortua.
- Okupazio-portzentajea: eraikitze lursailen okupazioa, guztira, ezin da eremuaren azaleraren % 60 baino handiagoa izan, egun erabilera eta jabetza publikoari lotutako lursaili dagokiena kenduta.
- Lerrokadurekiko atzera-eramangunea: eraikin bakoitza aldeetako batetik lerrokadurari atxiki daiteke eta gainontzeko aldeetan 3 metroko tartea utzi behar du. Eraikinen arteko atzera-eramanguneak eraikin garaienaren altura izan behar du, gutxienez.

Beste baldintza batzuk:

- Katalogatutako eraikinei ez zaizkie aplikatutako gehieneko alturaren eta lerrokadurekiko atzera-eramanguneen parametroak.
- Hezkuntza arloko eraikinak finkatuta geratzen dira, baita baimendutako gehieneko eraikigarritasuna gainditu badute ere.
- Plan bereziak egungo lursailen mugak aldatu ahalko ditu, aprobetxamenduak errespetatuz.

APROBETXAMENDUA

Antolatze gehieneko aprobetxamendua 122.127 m²e-koa da.

LOTESPEN MAILA

Eremuaren loturaren erregimen orokorraren araberakoa

NAHITAEZKO LAGAPENAK

Plan berezian jabetza eta erabilera publikoko gune sailkapen xehatua duten lursailak eta, gutxienez, eremuko fitxan garraio eta komunikazioko sistema orokorrak, berdeguneak, espazio libreak eta bide publiko erreferentzia dutenak izango dira.

URBANIZATZE KARGAK

Eraikin onartzen ez duten ekipamendu lursailak diren espazio guztiak urbanizatuko dira, eta nahitaezko lagapenen atalean adierazitakoak izango dira, gutxienez.